



**LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN 2011ko IRAILAREN 8ko EBAZPENA, IRAKASLE EZ DEN HEZKUNTZA BEREZIKO LAN-LEGEPEKO PERTSONALARI LANPOSTUAK ESLEITZEKO PROZESUA BEHIN-BETIKOZ EBAZTEN DUENA.**

Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2011ko abuztuaren 31ko ebazpenaren bidez behin-behingo ebatzi zen irakasle ez den Hezkuntza Bereziko lan-legepeko pertsonalari lanpostuak esleitzeko prozesua eta erreklamazioak egiteko epe bat ireki zen.

Erreklamazioak berrikusi ondoren, irakasle ez den Hezkuntza Bereziko lan-legepeko pertsonalari lanpostuak esleitzeko prozesuari buruzko behin-betiko ebazpena eman behar da argitara.

Horren arabera, **EBATZI DUT:**

**Lehena. Erreklamazioen zerrenda.**

Argitara ematen da aurkeztutako erreklamazioen zerrenda, onartuak izan diren edo ez eta, azken kasu honetan, onartu ez izanaren arrazoia adieraziz.

AMONDARAIN URTZEGI, IKER: Onartzea Zeinu Mintzairaren Interpretarean lanpostuari, lanaldiaren erdiarekin eta Arabako lurralderako, 2011ko abuztuaren 31n aurkeztu dion uko egitea.

CAMPO VALLEJO, M<sup>a</sup> CRUZ: ez onartzea 2011ko irailaren 6an aurkeztu duen erreklamazioa, garaiz kanpoko izateagatik.

ZUBIA ARANBARRI, BEATRIZ: ez onartzea 2011ko irailaren 6an aurkeztu duen erreklamazioa, garaiz kanpoko izateagatik.

**Bigarrena. Prozesuaren behin-betiko ebazpena.**

Onartzen da irakasle ez den Hezkuntza Bereziko lan-legepeko pertsonalari lanpostuak esleitzeko abuztuaren 30ean izan zen prozesuaren behin-betiko ebazpena.

**Errekurtsoak.**

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gorako errekurtoa jarri ahal izango zaio ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 8a

**Juan Manuel Aramendi Arteaga**  
**LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA**